

RASFF TXOSTENA

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK


ELIKAGAIAK

2014ko LEHENENGO LAUHILEKOA

Jakinarazpenen kategorizazioa
Jakinarazpenen jatorria
Kutsadura iturrien sailkapena
Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak


JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA

2014ko lehenengo lauhilekoan animalien elikagaiei buruzko 858 jakinarazpen izan dira. Horietatik 211 alertak izan dira (%24,5), 246 informazio-jakinazpenak (%28,5) eta 401 mugan egin diren ukapenak (%47).



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **22 Txinakoak** dira eta jarraian **India** dugu: kasuen % **20a**. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortu duen herrialdea **Espainia** izan da, % **21,5**arekin. **Afrikaren** kasuan, **Egiptok**, jakinarazpenen %**22** izan ditu. Azkenik, **Amerikaren** kasuan **AEBk** da jakinarazpen gehien sortzen duena (% **48**).

KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2014ko 1. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 858 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

| Kutsadura iturriak | % |
|--------------------------------------|-------|
| Kutsadura biologikoa | %25 |
| Hondakinak | %21 |
| Mikotoxinak/biotoxinak | %15 |
| Iruzurrak | %13 |
| Kutsadura kimikoa | %11,5 |
| Metal astunak | %8 |
| Produktuaren egoera higieniko txarra | %4,5 |
| Kutsadura fisikoa | %2 |



KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % **72**an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **pistatxoak** kutsaduren % **27,5** eragin du. Bestalde, kasu gehienetan (% **81a**) kakahuetea **Asiatik** zetorren. Bigarren lekuan, **kakahueteak** (%**20**) eta bere jatorria **Asia** (%**57**).

Kutsadura biologikoei dagokienez, **salmonelek** kutsaduren % **44,5** eragin ditu. **Salmonella sp** da talde honetako protagonista nagusia kasuen % **80**ean. Ikuiluetako hegaztiak izan dira produktu protagonista %**38**ko kasuetan, %**79,5**ko kasuetan Asia jatorria zelarrik. Beste salmonelari dagokienez, % **17a Salmonella enteritidis** dagokio (oilaskok eragin ditu kasuen % 94a eta %100ko kasuetan Europa izan da jatorria) eta % **3a Salmonella typhimuriumi** (hegaztiak eragin ditu kasuen % 67a, eta % 50ean Europa eta Asia izan dira jatorrizko herrialdea).

Bestalde, **E.coli** dugu bigarren kutsatzaile nagusia: kasuen % **17,5a**. Inplikaturako produktuei dagokienez: **behi haragia** (% **38**). *E.coli*k eragindako jakinarazpen gehienak **Brasil** jatorria zuten (%**71,5a**).

Hondakinei dagokionez, **pestizidak** %**84a** dira eta medikamentuak %**16a**. Pestiziden kasuan, **barazkiak** inplikatuak daude kasuen %**56**an eta gehienak (%**57a**) **asiarrak** dira.

Metal astunei buruz esan behar da **merkurioak** eragin dituela jakinarazpen gehien; zehazki, % **52**. Ezpata-arraina protagonista izan da %**50**eko kasuetan eta jatorria Espainia %**61**an.

| ITURRIA | ZK | AGENTEA | ZK(%) | PRODUKTU ERAGILEA | ZK(%) | JATORRIA | ZK(%) |
|-------------------------------|-----|-----------------------|-----------|-------------------|-----------|----------|-----------|
| Mikotoxinak/Biotoxinak | 131 | Aflatoxinak | 94 (72%) | pistatxoak | 26(27,5%) | Asia | 21 (81%) |
| Kutsadura biologikoa | 213 | Salmonella sp. | 95(44,5%) | | | | |
| | | <i>Salmonella sp.</i> | 76 (80%) | hegaztiak | 29 (38%) | Asia | 23(79,5%) |
| | | <i>S.enteritidis</i> | 16 (17%) | oilaskoa | 15 (94%) | Europa | 15 (100%) |
| | | <i>S.typhimurium</i> | 3 (3%) | hegaztiak | 2 (67%) | Asia | 1 (50%) |
| | | E.coli | 37(17,5%) | behi haragia | 14 (38%) | Brasil | 11(71,5%) |
| Metal astunak | 69 | Merkurioa | 36 (52%) | ezpata-arraina | 18 (50%) | Espainia | 11 (61%) |
| Hondakinak | 179 | Pestizidak | 150 (84%) | barazkiak | 84 (56%) | Asia | 48 (57%) |
| | | Botikak | 29 (16%) | ganbak | 14(52,5%) | Asia | 14(100%) |